**ERABAKIA, 2022ko azaroaren 29koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearena, IKD GAZtE Programako bekak arautu eta deialdia egiteko, beken helburua izanik Gradu Amaierako Lana/Master Amaierako Lana IKD hezkuntza ereduan oinarritua egitea kanpoko erakunde batekin lankidetzan (2023ko deialdia).**

## OINARRIAK

### I. Xedapen orokorrak

#### 1. Xedea

1.1. Erabaki honen xedea da IKD GAZtE Programaren (aurrerantzean, Programa) 2023ko oinarriak arautzea eta deialdia egitea. Programa honen bidez, IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) hezkuntza eredua sustatu nahi da, bai eta irakaskuntza berrikuntzako esparru berrian Garapen Jasangarrirako Helburuak oinarri hartuta, elkarlanean egindako Gradu Amaierako Lanak (GRALa) edota Master Amaierako Lanak (MALa) bultzatu nahi dira. Hori guztia, UPV/EHUko ikasleen jarrera ekintzailea sustatuz, gizartearen eta unibertsitatearen arteko topagunea sortuz eta zeharkako gaitasunak garatuz.

1.2. Programak 30 beka izango ditu, eta UPV/EHUko 3 Campusetako ikasleen artean esleituko dira, kanpoko erakundeekin lankidetzan egiten ari diren eta 2022/23 ikasturtean defendatuko diren GRALak eta MALak prestatzeko eta garatzeko.

1.3. Programa honetako bekak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira, publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioen arabera emango dira, eta lehiaketa prozedura banaren bidez esleituko dira eskatzaileen artean; horrela, Erabaki honetan jasotako balorazio irizpideak eta hautaketa prozesuak kontuan hartuta, puntuaziorik handiena lortzen duten hautagaiei soilik emango zaizkie, proposatutako beka kopurua bete arte.

1.4. Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak finantzatuko du

**RESOLUCIÓN de 29 de noviembre de 2022, del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se regula y convoca el Programa IKD GAZtE de becas para el desarrollo de Trabajos Fin de Grado y/o Trabajos Fin de Máster en colaboración con entidades externas y basados en el modelo educativo IKD (Edición 2023).**

## BASES

### I. Disposiciones generales

#### 1. Objeto

1.1. La presente resolución tiene como objeto la regulación de las bases y la convocatoria de la edición de 2023 del Programa IKD GAZtE (Programa, en adelante), el cual pretende fomentar el modelo educativo IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) y del nuevo marco de innovación docente mediante el impulso de los Trabajos Fin de Grado (TFG) y/o Trabajos Fin de Máster (TFM) en relación con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en el marco educativo i3. Todo ello fomentando la actitud emprendedora del alumnado de la UPV/EHU, creando un punto de encuentro entre la sociedad y la universidad, y mediante el desarrollo de competencias transversales.

1.2. El Programa estará constituido por 30 becas a asignar entre el alumnado de los 3 Campus de la UPV/EHU, para la formación y el desarrollo del TFG y TFM que se estén realizando en colaboración con entidades externas y que se vayan a defender durante el curso 2022/23.

1.3. Las becas de este Programa tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables, se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, y se adjudicarán entre las personas solicitantes mediante sendos procedimientos de concurso, de forma que atendiendo a los criterios de valoración y procesos de selección contemplados en la presente Resolución, sólo se concederán a las personas candidatas que obtengan la mayor puntuación hasta cubrir el número de becas que se convoquen.

1.4. La ejecución de la convocatoria otorgada con financiación del Vicerrectorado de Estudiantes y

deialdia, beti ere, kreditu nahikoa eta egokia badago.

## 2. Proposatutako bekak, edukia eta iraupena

2.1. IKD GAZtE Programaren 2023ko deialdian, gehienez 30 beka eman ahal izango dira. Modu proportzionalean banatuta egongo dira hiru Campusetan, Campus bakoitzeko UPV/EHUko ikasle kopuruaren arabera: Bizkaiko Campusean ikasleen %50 (15 beka); Gipuzkoako Campusean, %30 (9 beka); eta Arabakoan, %20 (6 beka). Campus batean beka guztiak banatu ezean, beka horiek beste batera aldatu ahal izango dira, jasotako eskaeren eta deialdiaren balorazio irizpideen arabera.

2.2. Diru kopurua: 1.000 € ordainduko dira beka bakoitzeko: % 40 Programaren lehen bileran, konpromiso adierazpena sinatu eta entregatu ostean (I. eranskinean jasotako agiria), eta gainerako % 60 GRALa edo MALa defendatu ondoren.

Bestalde, beste 1.000 €-ra arteko diru poltsa gehigarria esleitu ahal izango da bekadun bakoitzeko, diruz lagundu daitezkeen jardueretarako: prototipoen diseinutik edo kongresu edo atzerriko egonaldietan parte hartzeagatik eratorriko gastuetarako.

2.3. Prestakuntza: hilero, prestakuntza saioak ospatuko dira Campus bakoitzean 2023ko otsaila eta ekaina bitartean, GRALa edo MALa ondo defendatzeko beharrezkoak diren zeharkako gaitasunak garatzeko, besteak-beste.

2.4.- Beken esleipendunek Programako orientazioko teknikari baten laguntza izango dute. Gainera, pertsona hori bekaren onuradun bakoitzaren aprobetxamendu maila gainbegiratzeaz arduratuko da, baita aurreikusitako jarduerak eta Programan aurreikusitako helburuak kudeatzeaz ere.

Empleabilidad estará supeditada a la existencia de crédito suficiente y adecuado.

## 2. Becas convocadas, contenido, y duración

2.1. El número máximo de becas que se podrán conceder en la edición 2023 del Programa IKD GAZtE será de 30. Esta concesión estará dividida de manera proporcional por cada Campus según el porcentaje de alumnado de la UPV/EHU: 50% en Bizkaia (15); 30% en Gipuzkoa (9); y 20% en Araba (6). Será posible en caso de no llegar al cupo en algún Campus, el traslado del cupo a otro según las solicitudes recibidas y los requisitos de valoración de la convocatoria.

2.2 Cuantía económica: se asignará una beca individual de 1.000€, de la cual se pagará el 40% una vez firmada la declaración de compromiso recogida en el anexo (I) y presentada en la primera reunión del programa, y el 60% restante, una vez defendido el TFG o TFM.

Por otra parte, se prevé una bolsa económica de hasta 1.000€ por cada persona becada para actividades subvencionables como gastos inferidos del diseño de prototipos o la participación en congresos o estancias en el extranjero.

2.3. Formación: se organizarán sesiones formativas mensuales en cada Campus entre febrero y junio de 2023para entre otros- el desarrollo de las competencias transversales necesarias para una buena defensa de TFG o TFM.

2.4. Las personas adjudicatarias de las becas contarán con el apoyo de una técnica de orientación del Programa. Además, esta persona se encargará de la supervisión del nivel de aprovechamiento de cada una de las personas beneficiarias de la beca, así como de la gestión de las actividades previstas y de los objetivos planteados en el Programa.

## II. Bekaren onuradunak hautatzeko prozesua

### 3. Hautagaien betebeharrak

Hautagaiek honako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskaera egiterakoan:

- 2022/23 ikasturtean, UPV/EHUko edozein gradutako azken ikasturtean edo UPV/EHUko master ofizialetako batean matrikulatuta egotea.
- Eskaera egiteko unean GRAL edo MAL batean lanean aritzea edo lanean hastea hitzartua edukitzea kanpoko erakunde batekin lankidetzan, hala nola enpresa pribatu edo publikoekin, elkarteekin, Administrazio Publikoarekin edo izaera bera izan dezaketen beste eragileekin. (II. eranskina bete behar da).
- Indarrean dagoen matrikulari dagokion zikloan IKD GAZtE programan parte hartu ez izana.
- Denbora libre nahikoa izatea, alde batetik, bekako jardueretan parte hartu ahal izateko (hilean 4 orduko saio bat 2023ko otsailetik ekainera bitartean), eta, bestetik, Programara proposatutako GRALa edota MALean aktiboki lan egiteko.
- GRAL edo MAL proiektuaren ekarpenik garrantzitsuenak ekitaldi publiko batean azaltzeko konpromisoa betetzea.
- Oro har, Europar Batasuneko kide den estatu bateko herritarrak izan beharko dute bekaren eskatzaileek, bai eta atxikitzen diren herrialdeetakoak, izangai diren herrialdeetakoak eta izangai potentzialetakoak (Ipar Mazedoniako Errepublika, Turkiako Errepublika eta Serbiako Errepublika) edo Europako Merkataritza Libreko Elkarteko (EFTA) kideak ere, aldi berean Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) kide direnak, hau da: Liechtenstein, Islandia eta Norvegia. Espainiak ofizialki errefuxiatu, aberrigabe edo biztanle iraunkor aitortutako pertsonek ere parte hartu ahal izango dute deialdi honetan.
- Parte hartu ahal izango dute, halaber, Programan parte hartzen duen herrialde bateko nazionalitatea izan gabe, beste herrialde bateko nazionalitatea duten pertsonek, baldin eta bekaren

## II. Selección de las personas beneficiarias de las becas

### 3. Requisitos de las personas aspirantes

Las personas aspirantes habrán de reunir los requisitos que se enumeran a continuación en el momento de formalizar la solicitud:

- Hallarse matriculado/a en el curso 2022/2023 en el último curso de cualquier Grado de la UPV/EHU, o en alguno de los Másteres Oficiales de la UPV/EHU.
- Estar desarrollando o tener el visto bueno para empezar -en el momento de formalizar esta solicitud- un TFG o TFM en colaboración con una entidad externa tales como empresas privadas o públicas, asociaciones, Administración Pública u otros agentes que también podrían tener la misma consideración (cumplimentar anexo II).
- No haber participado en el Programa IKD GAZtE en el mismo ciclo en el que esté matriculado/a.
- Tener disponibilidad horaria suficiente como para, por un lado poder participar en las actividades vinculadas con la beca (1 sesión mensual de 4 horas entre febrero y junio de 2023) y, por otro, trabajar activamente en la elaboración y desarrollo del TFG y/o TFM con el que se presentan al Programa.
- Cumplir el compromiso de exponer en un acto público las aportaciones más importantes del proyecto GRAL o MAL.
- Con carácter general las personas solicitantes de las becas habrán de ser ciudadanas de un Estado Miembro de la Unión Europea, de los países adherentes, los países candidatos y los candidatos potenciales (República de Macedonia del Norte, República de Turquía y República de Serbia) o de los miembros de la Asociación Europea de Libre Comercio (AELC) que son a su vez miembros del Espacio Económico Europeo (EEE): Liechtenstein, Islandia y Noruega. Podrán participar igualmente en la presente convocatoria las personas oficialmente reconocidas por España como personas refugiadas, apátridas o residentes permanentes.
- También podrán participar aquellas personas que, no siendo nacionales de uno de los países participantes en el Programa, lo sean de terceros países y estén en posesión de un permiso de residencia válido para residir en España

aprobetxamendu aldian Espainian bizitzeko egoitza baimen baliodun badute.

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

durante el periodo de aprovechamiento de la beca.

- No hallarse sancionado/a penal ni administrativamente con la pérdida de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso/a en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con la inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## 4. Eskaerak egiteko prozedura

4.1. Eskaerak aurkezteko epea: 2022ko azaroarren 30etik 2023ko urtarrilaren 13ra (biak barne) izango da.

4.2. Programan parte hartu nahi duten pertsonek, oinarri hauetako 3. puntuan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, eskaera orria bete eta izena eman beharko dute. Inprimaki hori web-helbide honetan eskura daiteke: www.ehuikdgazte.eus

4.3. Bekaren eskatzaileek, eskaera orrian, kanpoko erakunde batekin lankidetzan egiten ari diren edo egingo duten GRALerako edo MALerako aukeratutako gaiaren laburpena egin beharko dute, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez. Idatzian, era berean, lankidetza horren garrantzia azaldu beharko da: arrazoitu egin beharko dira lankidetzaren zergatia eta proiektu horrek erakundeari edo gizarteari egin diezaiokeen ekarpena bera ere.

4.4. Eskariarekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.
GRAL edo MALaren tutoreak sinatutako jarraipen fitxa. (II. eranskina).
Eskatzailearen Curriculum Vitae-a.
GRAL edo MAL-a egiteko lankidetzan ari den enpresa/elkarte/administrazio publikoaren hitzarmena edo/eta kontratua.

4.5. Eskaria bete ondoren, eskatzaileak gauzatutako eskaera horren egiaztagiria jasoko du jakinarazpenetarako adierazitako posta elektronikoan. Mezu hori jasotakoan, egiaztagiria inprimatu eta Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko

## 4. Procedimiento de solicitud

4.1. El plazo de presentación de solicitudes será el siguiente: del 30 de noviembre al 13 de enero de 2023 (ambos inclusive).

4.2. Las personas interesadas en participar en el Programa que cumplan los requisitos planteados en el punto 3 de estas bases, deberán inscribirse en el formulario de solicitud disponible en la dirección web: www.ehuikdgazte.eus

4.3. Las personas solicitantes de la beca deberán añadir en el formulario anterior, un resumen en euskera, castellano o inglés del tema elegido para su TFG o TFM que esté o vaya a realizarse en colaboración con una entidad externa. También se deberá argumentar por escrito la importancia de dicha colaboración, justificando la razón de la colaboración y argumentando la contribución que dicho proyecto pueda ofrecer a la entidad o sociedad.

4.4. Junto a la solicitud, la persona solicitante deberá aportar la siguiente documentación:
Copia del DNI, NIE o pasaporte.
Ficha de seguimiento firmada por el tutor del TFG o TFM. (Anexo II)
Currículum Vitae de la persona solicitante.
Convenio u/o contrato de la empresa/ asociación/administración pública con la que se está colaborando en el marco de la elaboración del TFG o TFM.

4.5. Tras cumplimentar la solicitud, la persona solicitante recibirá un resguardo de solicitud en la dirección de correo electrónico que figure en la solicitud para efectos de notificaciones. Una vez recibido el citado mensaje con el resguardo de solicitud, deberá imprimirse y enviarse al

errektoreordeari bidali beharko zaio. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, egiaztagiri hori ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko da, ahal den guztietan UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico.
"Jasotzailea" atalean "Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetza" aukeratu beharko da.

Horretarako, identifikazio elektronikoko sistema hauetakoren bat erabili beharko da:
a) Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala
b) UPV/EHUko txartela (Izenpe)
c) NAN elektronikoa
d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalak emandako ziurtagiriak (FNMTCERES).

Beste era hauetako batean ere aurkeztu ahal izango da:
a) sektore publikoko edozein erakunderen gainerako erregistro elektronikoetan.
b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro gaietan laguntzeko bulegoetan bertaratuta, funtzionario publiko gaitu baten bitartez.
c) posta bulegoetan.
d) Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkaritzetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

4.6. Bide telematikoz bidalitako eskariak, aurreko paragrafoan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, aurkeztu gabekotzat joko dira, eta Programatik kanpo geratuko dira.

4.7. Eskaria egiteko eredua (I. eranskina) eskuragarri dago honako web orrialdean: www.ehuikdgazte.eus

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren agiriak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian

Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad. De conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, este resguardo deberá presentarse dentro del plazo establecido, preferentemente a través del registro electrónico de la UPV/EHU ubicado en la siguiente URL: https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico eligiendo en "Destino" de la solicitud al Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad.

Para ello se deberá utilizar alguno de los siguientes sistemas de identificación electrónica:
a) Certificado Digital de Usuario/a de Izenpe
b) Tarjeta Universitaria de la UPV/EHU (Izenpe)
c) DNI electrónico
d) Certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMTCERES.

Asimismo, podrá presentarse:

a) en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público.
b) presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU o de cualquier otra entidad perteneciente al sector público, a través de persona funcionaria pública habilitada.
c) en las oficinas de Correos.
d) en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

4.6. Aquellas solicitudes enviadas por vía telemática que no hayan sido registradas mediante el procedimiento señalado en el párrafo anterior se considerarán como no presentadas y quedarán excluidas del Programa.

4.7. Se podrá obtener un modelo de solicitud (Anexo I) en la siguiente URL: www.ehuikdgazte.eus

Los documentos presentados de manera presencial en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de

adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

## 5. Bekak esleitzeko prozesua

5.1. Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, UPV/EHUko Praktika eta Enpleguaren atarian argitaratuko da, UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearen erabaki baten bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, eta, hala badagokio, zerrendan adieraziko da nori faltan zaizkion derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak eta zer agiri falta zaizkion. Horrelakoetan, izangaiak 10 egun balioduneko epea izango du agiriok aurkezteko, eta horrela egin ezean, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da, guztia bat etorrita 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68. artikuluan zehaztutakoarekin.

5.2. Baztertzeko arrazoiak honakoak izango dira: a) eskaria deialdi honetan ezarritako epetik kanpo aurkeztea; eta b) Erabaki honetan adierazitako baldintzak ez betetzea.

5.3. Behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurreko paragrafoan adierazitako lekuan argitaratuko da, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearen erabakiaren bidez, hautaketa prozesuan parte hartuko duten hautagaien behin betiko zerrenda.

5.4. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretako dagokion epaitegian.

## 5. Proceso de adjudicación

5.1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes se hará público en el portal de Prácticas y Empleo de la UPV/EHU, mediante Resolución del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU, la lista provisional de personas admitidas y excluidas, con indicación, en su caso, de las que no han incluido todos los documentos y expresión concreta de los que falten, para que en el plazo de 10 días hábiles subsanen las deficiencias presentando la documentación requerida, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.2. Serán causas de exclusión: a) la presentación de solicitudes fuera del plazo establecido a tal efecto en la presente convocatoria; y b) el no cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Resolución.

5.3. Finalizado el plazo de reclamaciones a la lista provisional, se publicará, en el lugar señalado en el apartado anterior, mediante Resolución del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad, el listado definitivo de aspirantes que van a participar en el proceso de selección.

5.4. Contra dicha Resolución cabrá recurso potestativo de reposición ante el Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad, en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de dicho orden jurisdiccional que corresponda, en el plazo de dos meses.

## 6. Hautaketa Batzordea

## 6. Comité de selección

6.1. Batzordeak osakide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordea edo hark izendatutako pertsona bat.
- Idazkaria: UPV/EHUko Praktiken, Formakuntza Dualaren eta Enplegagarritasunaren arloko Zuzendaria.
- Batzordekidea: IKD GAZtE Programako orientazio teknikaria.

6.2. Batzordeak bozketa bidez hartuko ditu erabakiak. Oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztirako, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoari jarraituko zaio.

6.3 Batzordeak iritzia eskatu ahal izango die batzordekoak ez diren kanpoko profesional, ikertzaile edo espezialistei.

## 7. Baloraziorako irizpideak

Hauek dira Hautaketa Batzordeak oinarri izango dituen balorazio irizpideak:

- Lanaren kalitatea eta horren barruan: helburuak behar bezala definituta izatea, datuak zorroztasunez erabiltzea, lana zehaztasunez proposatzea eta azalpena argia izatea: %30.
- Lanaren garrantzia eta originaltasuna, eta honen barruan: gaiaren, ikuspegiaren edo arloaren berritasuna; interesa; ikerketaren etikari dagozkion praktika onak erabiltzea; eta lotura izatea euskal gizartearekin: %30.
- Lanak erakunde laguntzailearengan, unibertsitateko komunitatearengan eta, oro har, gizartearengan daukan inpaktu soziala eta irismena, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta EHUagenda 2030ean berariaz ezarritakoekin bat: %30.
- Espediente akademikoko batez besteko nota: (master ofizialetan ikasketa horietara sartzeko ikasi izandako graduko nota hartuko da kontuan): %10.

## 8. Erabakia

6.1. El Comité de Selección estará compuesto por los siguientes miembros:

Presidente:

- Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU o la persona en quien delegue.
- Secretario: Director de Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad de la UPV/EHU.
- Vocal: Técnica de orientación del Programa IKD GAZtE.

6.2. El Comité de Selección adoptará sus acuerdos mediante procedimiento de votación. En lo no previsto en esta Base será de aplicación lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

6.3. El Comité de Selección podrá pedir opinión a personas profesionales, investigadoras o especialistas ajenas al mismo.

## 7. Criterios de valoración

Los criterios de valoración a tener en cuenta por el Comité de Selección son los siguientes:

- Calidad del trabajo donde se incluirán los objetivos debidamente definidos, el rigor en el tratamiento de los datos, la minuciosidad del trabajo y la claridad expositiva: 30%.
- Relevancia y originalidad incluyendo: novedad en la temática, enfoque o área; interés; adecuación a buenas prácticas en ética de la investigación y vinculación con la sociedad vasca: 30%.
- El impacto social y alcance que el trabajo plantea sobre la entidad colaboradora, la comunidad universitaria y la sociedad en general, en la línea de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de las Naciones Unidas y en específico los establecidos en la EHUagenda 2030: 30%.

- Nota media del expediente académico: 10% (en los casos de Másteres Oficiales se tendrá en cuenta la nota del grado que da acceso al mismo): 10%.

## 8. Resolución

8.1. Beka eman edo ukatzeko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeak emango duen Erabakia jarraian datorren helbidean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta egun horretatik aurrera izango da betearazlea: http://www.ehuikdgazte.eus.

Errekurtsoak jartzeko epea kontatze aldera, argitalpen elektronikoaren data hartuko da kontuan.

8.2. Bekak emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, bekak emateko erabakia aldatu ahal izango da, betiere ebazpen honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

8.1. La resolución del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de concesión y denegación de becas entrará en vigor y será ejecutiva desde su publicación en la dirección: www.ehuikdgazte.eus.

Para el cómputo de plazos a efectos de interposición de recurso, se tendrá en cuenta la publicación electrónica.

8.2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las becas podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en la presente Resolución para ser beneficiario/a de ésta.

## III. Bekei buruzko beste gai batzuk

### 9. Informazio osagarria ematea, berariazko informazio bilera, beka onartzeko agiria sinatzea eta beka hasteko beharrezko agiriak ematea.

9.1. Esleipendunen behin betiko zerrenda behin argitaratuta, informazio pertsonal osagarria eskatuko zaie onuradunei beka hitzarmena prestatzeko.

9.2. Bestalde, informazio hori ematean, beka onartzeko agiri bat sinatzea eskatuko zaie. Beka onartzea (ikus II. eranskineko eredua) ezinbesteko baldintza da beka gauzatzeko. Erabaki honetan adierazitako moduan onartu ezean, erreserbista zerrendan lehenengo dagoen pertsonari esleituko zaio beka.

9.3. UPV/EHUko campus bakoitzean bilera bat egingo da esleipendunekin programari buruzko informazio zehatza emateko.

### 10. Laguntzak ordaintzea

10.1. Oro har, laguntzak banku transferentzia bidez ordainduko dira kontu korrontera, eta laguntzen onuraduna izan behar da nahitaez kontu horren titularra edo titularkidea.

## III. Otras cuestiones relacionadas con las becas

### 9. Entrega de información complementaria, reunión informativa específica, firma de la aceptación de la beca y entrega de documentación necesaria para iniciar la beca.

9.1. Publicada la lista definitiva de personas adjudicatarias de las becas, se solicitará a éstas información personal complementaria en orden a preparar los convenios de becas.

9.2. Asimismo, a la entrega de esta información, se solicitará a las personas adjudicatarias que firmen un documento relativo a la aceptación de la beca. La aceptación de la beca (ver modelo en el anexo II) es condición sine qua non para el ulterior disfrute de la misma. La no aceptación de la misma en los términos expresados en esta resolución dará lugar a la adjudicación de la beca a la persona que figure en primer lugar en la lista de reservista.

9.3. Se celebrará una reunión en cada campus de la UPV/EHU con las personas adjudicatarias tendente a facilitar la información detallada sobre el Programa.

### 10. Pago de las ayudas

10.1. Con carácter general, el pago de las ayudas se realizará mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente cuyas titulares o cotitulares

Kontu zenbakia onuradunak berak eman beharko du, eta erabilgarri egon beharko da bekak irauten duen aldi osoan.

10.2. Beka bi zatitan ordainduko da: bata, % 40a, programa aurkezteko bilerara joan ondoren (gorago aipatua), eta, bestea, % 60a, defentsa egitean, baina, betiere, prestakuntza programa amaitu ondoren eta titulua eskatu izanagatik espediente akademikoa itxi baino lehen. Behin espedientea itxita, ezin izango da ordainketarik egin; beraz, bekaren zenbateko osoa kobratu arte itxaron beharko da titulua eskatu eta espedientea ixteko.

## 11. Bekaren onuradunaren betebeharrak

Bekaren onuradunaren betebeharrak dira:

- Bekaren aldian eskatzen zaizkion agiri guztiak (laburpenak, lan gidatuak eta abar) adierazitako epean aurkeztea epe horiek zorrotz beteta. Epeak bete ezean, bekatik kanpo geratuko da.

- Beka onartzea erabaki honen II. eranskinean (Konpromiso adierazpena) jasotako ereduaren arabera, erakundeak horretarako adierazitako epean.
- Zinpeko adierazpen sinatua, adierazten duena onuradunak ez daukala bateraezintasunik beka onartzeko (III. eranskina).
- Bekaren aldian arduraz aritzea eman zaizkion prestakuntza jardueretan, bat etorrita bekaren izaerarekin.
- GRALa edo MALa 2022/23 ikasturtean jartzea gordailuan eta dagokion defentsa egitea.
- Beka deialdi honetan egindako eta onar daitezkeen gastuen egiaztagiriak aurkeztea.
- Programaren barruan egiten diren ekintza guztietan parte hartzea (aurkezpen bilera, ebaluazio bilera formal eta informalak, coaching-saioak, etab.).
- Programaren antolatzaileek eskatutako informazio guztia ematea, bekak irauten duen bitartean eta ondoren beka ebaluatzeko ekimenei arreta berezia jarriz.
- Beka emateko kontuan hartu den edo bekaren garapen normalari eragiten dion edozein gorabehera objektibo zein

deberán ser, necesariamente, las personas beneficiarias de las mismas. Dicha cuenta deberá ser facilitada por la persona participante y deberá permanecer operativa durante todo el período de percepción disfrute de la beca.

10.2. El pago de la beca se distribuirá en dos periodos: uno del 40% tras haber asistido a la reunión de presentación del Programa mencionada anteriormente, y otro del 60% al realizar la defensa siempre y cuando sea una vez finalizado el programa formativo y nunca antes del cierre del expediente académico por solicitud de título No se podrán realizar pagos una vez que el expediente este cerrado, por lo que se deberá esperar a cobrar el importe íntegro de la beca antes de solicitar el título y cerrar el expediente.

## 11. Obligaciones de las personas beneficiarias de las becas

Son obligaciones de las personas beneficiarias de la beca:

- Cumplir estrictamente los plazos de presentación de documentación solicitada en el marco de la intervención de la beca (resúmenes, comunicaciones, trabajos dirigidos, etc). En caso contrario será excluido/a de la beca.
- Aceptar la beca concedida según modelo contenido en el anexo II (Declaración de compromiso) de la presente Resolución en el plazo indicado al efecto por la organización.
- Firmar una declaración jurada de no estar sujeto a incompatibilidad en la percepción de la beca, conforme a lo dispuesto en el anexo III de la presente Resolución.
- Dedicarse con responsabilidad durante el plazo establecido, y de acuerdo con el carácter de la beca, a las tareas de carácter formativo que le hayan sido encomendadas.
- El depósito del TFG o TFM dentro del curso académico 2022/2023 y proceder con su correspondiente defensa.
- Entregar los justificantes de los gastos realizados y admisibles dentro esta convocatoria de beca.
- Participar en todas las iniciativas que en el marco del Programa (reunión de presentación, reuniones formales e informales de evaluación, sesiones de coaching, etc.).
- Facilitar cuanta información le sea requerida por la organización del Programa, con especial atención a las iniciativas tendentes a

subjektibo aldatuz gero, horren berri ematea programaren antolatzaileei.

- Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideen berri ematea programaren antolatzaileei.
- Bekak irauten duen bitartean egindako txostenak programaren antolatzaileek argitara eman ditzaketela onartzea.
- Programaren arduradunek emandako jarraibideak betetzea.
- Behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzea, bai eta gastua behar bezala justifikatu ez den kasuetan ere.
- Programako lankideekiko eta gainerako partaideekiko errespetuzko eta erantzukizuneko jarrera izatea.

## 12. Kontrola eta jarraipena

Programaren antolatzaileek egingo dute beken onuradunek garatu beharreko jardueren kontrola eta jarraipena. Erakundeak egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu beken garapenari dagokionez.

## 13. Bekaren onuradun izateari uztea

13.1. Bekaren onuradun izateari utziko zaio bekaren indarraldia bukatzen denean, bai eta beste arrazoi hauengatik ere:

Berariaz edo isilbidez uko egitea. Aurreikusita dago ikaslea zigortzea, baldin eta beka lortu ondoren behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe bekari uko egin badio beste hautagairen bat bekaren onuradun izatea eragozten duen data baten ondoren.
Betebeharrak ez betetzeagatik edo horiek emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik beka bertan behera uztea.
Ezustean sortutako bateraezintasun edo ezinbesteko arrazoiengatik.

evaluar la beca durante y tras el disfrute de la misma.

- Comunicar a la organización del Programa la modificación de cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la beca o que afecte al normal desarrollo de la beca.
- Comunicar a la organización del Programa la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.
- Aceptar que los informes que puedan ser elaborados durante el disfrute de la beca sean objeto de publicación por parte de la organización del Programa.
- Cumplir las instrucciones que le sean transmitidas por las personas encargadas del programa.
- Devolver las cantidades indebidamente percibidas y las cantidades percibidas cuyo gasto no justifique adecuadamente.
- Mantener una actitud de respeto y responsabilidad hacia sus compañeros/as y resto de participantes en el Programa.

## 12. Control y seguimiento

El control y seguimiento de las actividades a desarrollar por las personas beneficiarias de las becas se adscribe a la organización del Programa. La organización podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo de las becas.

## 13. Pérdida de la condición de persona adjudicataria

13.1. La condición de persona adjudicataria de la beca se perderá, además de por la expiración del tiempo de disfrute de la beca, por alguna de las siguientes causas:

Renuncia expresa o tácita. Se prevé la penalización del alumnado que, tras obtener la beca, renuncie a la misma sin causa debidamente justificada después de una fecha que no permita la utilización de la beca por otros candidatos u otras candidatas.
Revocación por incumplimiento de obligaciones o por variación de las condiciones que se tomaron en cuenta para su concesión.

13.2. Bekadun izateari utziz gero beka aldia amaitu aurretik, bekadunak kobratutako eskubide ekonomiko guztiak itzuli beharko ditu. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, betetzear geratzen den beka-aldia hartuko da kontuan.

13.3. Beka ematea eragin zuten baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio UPV/EHUri, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera; izan ere, dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeri buruzko araubide orokorra arautzen da.

13.4. Bekadun izaera bertan behera uzteko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeak emandako erabakian jasota agertuko da egokia den edo ez ordezkoa izendatzea bekaren aldia bukatzeko geratzen diren hilabeteetan bekaren oinarrietan zehaztutako jarduerak betetzeko. Horretarako, kontuan izango da zenbat denbora geratzen den bekaren aldia bukatzeko eta beste gorabehera batzuk.

Ordezkoa izendatu behar baldin bada, Hautaketa Batzordeari dagokio ordezkoa proposatzea, deialdi honen 7. puntuan aipatutako irizpideei jarraituz.

## IV. Azken xedapenak

### 14. Argitara ematea

14.1. Erabaki hau 4. oinarrian zehaztutakoa kontuan hartuta argitaratuko da.

14.2. Deialdi honetako gainontzeko erabaki eta egintzak helbide honetan argitaratuko dira: http://www.ehuikdgazte.eus

Gune horretan bertan egongo da eskuragarri Programari buruzko informazio zabalagoa, besteak beste, informazio saioei buruzkoa.

14.3. Erabaki honetan adierazitako epeak, eskariak aurkezteko azken eguna salbu, gutxi gorabeherakoak dira, eta Programaren antolatzaileek hurrengo helbide honetan

Incompatibilidad sobrevenida o causa de fuerza mayor.

13.2. La pérdida de la condición de persona becaria, salvo por la expiración del tiempo de disfrute de la beca, dará lugar a la devolución de los derechos económicos cobrados por la misma. La cantidad por devolver se calculará teniendo en cuenta el periodo de beca que queda pendiente de desarrollar.

13.3. La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la beca dará lugar a la obligación de reintegrar a la UPV/EHU las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan de acuerdo a lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de subvenciones con cargo a los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

13.4. La resolución del Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad que declare la pérdida de la condición de becario/a deberá disponer, en razón del tiempo que resta hasta la finalización de la convocatoria u otras circunstancias, la procedencia o improcedencia de designar a la persona suplente que proceda para acceder a la condición de persona becaria y desempeñar las actividades previstas durante los meses que resten de disfrute de la beca.

En caso de tener que cubrir una vacante corresponderá al Comité de Selección proponer la selección de la persona suplente atendiendo a los criterios mencionados en el punto 7 de esta convocatoria.

## IV. Disposiciones finales

### 14. Publicidad

14.1. La presente Resolución será publicada sin perjuicio de lo previsto en la Base 4 la misma.

14.2. El resto de resoluciones y actos correspondientes a la presente convocatoria se publicarán en la siguiente URL: www.ehuikdgazte.eus
Por el mismo medio estará disponible cuanta información resulte de interés para el Programa, entre otras, la relativa a las sesiones formativas.

14.3. Las fechas fijadas en la presente Resolución, salvo la del límite para la presentación de solicitudes, son aproximativas y se irán confirmando por parte de la organización del

zehaztuko dituzte eta argitara eman: www.ehuikdgazte.eus

14.4. Programari buruzko informazio gehiago eskuratzeko telefonoa honakoa da: 943 01 84 22; posta elektronikoa: mailto:ikdgazte@ehu.eus; eta web orrialdea: www.ehuikdgazte.eus

**15. Araubide juridikoa**

Programa honek arau hauek izango ditu oinarri: (1) erabaki honen oinarriak; (2) azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; bereziki, VI. titulua, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Dirulaguntzen Araubidea" izenekoa; (3) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, indarrean dagoena; eta (4) aplikatzekoa den gainerako araudia.

**16. Berariazko erabakirik eza**

Baldin eta erabaki hau argitaratzen denetik sei hilabetera ez bada beken esleipenari buruzko inolako erabakirik argitaratu iragarki oholetan, interesdunek ezetsitzat jo dezakete beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorrita.

**17. Errekurtsoak**

17.1. Erabaki honen kontra eta bekak esleitzeko behin betiko erabakiaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordeari.

Horretarako epea hilabetekoa izango da, erabakia argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoarekin bat etorrita. Berariazko erabakirik eman ezean, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

17.2. Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietarako Bilboko epaitegietan bi

Programa en la siguiente URL: www.ehuikdgazte.eus

14.4. Se informará sobre el Programa, a través del siguiente teléfono: 943 01 84 22, email: ikdgazte@ehu.eus; y en la siguiente URL: www.ehuikdgazte.eus

**15. Régimen jurídico**

El programa se regirá por: (1) las bases de esta Resolución; (2) el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, especialmente su Título VI, denominado "Régimen de Ayudas y Subvenciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi"; (3) Ley General de Subvenciones en vigor; y (4) resto de normativa que resulte aplicable.

**16. Ausencia de resolución expresa**

Si transcurridos seis meses desde la publicación de esta Resolución no se hubiera publicado en los correspondientes tablones resolución alguna de adjudicación de las becas, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en el artículo 24 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**17. Recursos**

17.1. Contra la presente resolución y la que resuelva definitivamente la adjudicación de estas becas podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante el Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad.

El plazo para la interposición de recurso potestativo de reposición será de un mes, desde la publicación de las resoluciones.

Todo ello, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La falta de resolución expresa a dicho recurso tendrá carácter desestimatorio.

17.2. No obstante, lo anterior, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de Bilbao, en el plazo de dos meses desde la publicación de la presente Resolución.

hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Berraztertze errekurtsoa jarriz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoaren erabaki espresua eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte.

En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o presunta del primero.

Donostia, 2022ko azaroaren 29an

Digitally signed by 34097560Z FERNANDO TAPIA (R: Q4818001B)
Date: 2022.11.29 17:04:47 +01'00'

**Fernando Tapia Alberdi**
Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Arloko erretoreordea
Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad

# I. ERANSKINA / ANEXO I
# IKD GAZtE PROGRAMA / PROGRAMA IKD GAZtE
# ESKAERA ORRIA / FORMULARIO DE SOLICITUD

Bideratu eranskin hau -erregistro bidez- "Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordetzara".
Este anexo deberá dirigirse -a través del registro- al "Vicerrectorado de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU".

## **DATU PERTSONALAK /** DATOS PERSONALES

| Izen-abizenak/ Nombre y apellidos | **NAN** / DNI | **Sexua** / Sexo |
|---|---|---|
| | | |
| Helbidea / Dirección | Udalerria / Municipio | Probintzia/ Provincia |
| | | |

| Telefonoa / Teléfono | E-maila / E-mail | LinkedIn |
|---|---|---|
| | | |

## GRAL EDO MAL-A EGITERAKOAN LANKIDETZAN ARITUKO ZAREN ENPRESA ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDEA
## EMPRESA/ENTIDAD O ADMINISTRACIÓN CON LA QUE SE COLABORA/SE COLABORARÁ PARA LA ELABORACIÓN DEL TFG O TFM

| Izen soziala / Razón social | IFZ / CIF |
|---|---|
| | |
| Harremanetarako pertonaren izen-abizenak<br>Datos de la persona de contacto | Kargua / Cargo |
| | |
| E-maila / E-mail | Telefonoa / Teléfono |
| | |

## DATU AKADEMIKOAK/ DATOS ACADÉMICOS

| Ikastegia / Centro o facultad | Campusa/ Campus |
|---|---|
| | |
| Titulazioa/ Titulación | |
| | |
| UPV/EHUko tutorearen izen-abizenak<br>Nombre y apellidos del/a tutor/a de la UPV/EHU | Tutorearen E-maila<br>E-mail del/a tutor/a |
| | |

| GRAL edo MALaren behin-behineko izenburua / Título preliminar del TFG o TFM |
|---|
| |

| GRAL edo MALaren laburpena / Resúmen del TFG o TFM |
|---|
| |

| IKD GAZtE Programan parte hartzeko motibazioa argudiatu<br>(Bideo bat grabatu eta bere URL-a ere sar daiteke)<br><br>Argumentar los motivos por los cuales se quiere participar en el Programa IKD GAZtE<br>(Se puede grabar un video y añadir su URL) |
|---|
| |

## ATXIKITAKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

| | |
|---|---|
| | NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia/ Fotocopia del DNI, NIE o pasaporte |
| | Curriculuma/ Curriculum |
| | II. ERANSKINA GRAL edo MAL egiten ari izanaren ziurtagiria / II. Anexo Certificado de estar realizando GRAL o MAL |
| | IV. ERANSKINA Bateragarritasunari buruzko zinpeko aitorpena / IV. Anexo Declaración jurada de compatibilidad |
| | |
| | |

II. ERANSKINA / *ANEXO II*
GRAL EDO MAL-A EGITEN ARITZEAGATIKO ZIURTAGIRIA
*CERTIFICADO DE ENCONTRARSE ELABORANDO EL TFG O TFM*

Nik................................................................ ; (Gradu edo masterreko) irakasle naizenak, ziurtatzen dut ................................................ ikaslea, NAN zenbakia ........................ duena, 2022/23 ikasturtean zehar ................................................ behin behineko izenburua duen GRAL edo MALa prestatzen dabilela.................................. (Erakundearen izena)..................rekin batera, eta hurrengo (data honetan) defendatzeko asmoa duela.

Eta dagokion lekuan beharrezko diren ondorioetarako, honakoa sinatzen dut.

---

Yo ............................................. profesor/a de .....................(grado/master) .............certifico que el/la alumno/a ............................................ con DNI........................ está realizando el TFG o TFM ................. (título provisional) .............. en colaboración con ...........Nombre entidad....................... que previsiblemente será defendida en .............. (fecha)

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, firmo el presente.

**III. ERANSKINA /** *ANEXO III*
**IKD GAZtE PROGRAMA: KONPROMISO ADIERAZPENA**
*PROGRAMA IKD GAZtE: DECLARACIÓN DE COMPROMISO*

| | |
|---|---|
| Adierazpen honen bitartez, nik ……………………………………………-ek, eta NAN zenbakitzat ………………… daramanak, jarraian aipatutako IKD GAZtE Programaren beka deialdian jasotako konpromisoak beteko ditudala adierazten dut:<br><br>• 2023ko otsaila eta ekaina bitartean egingo diren saio presentzial guztietara bertaratzea.<br>• GRALa edo MALa 2022/23 ikasturtean defendatzea.<br>• Ez ixtea espediente akademikoa bekaren %100 jaso arte.<br>• Egin beharrekoei eta erantzukizunei aurre egiteko, ondo eta zuzen kudeatzea energia eta denbora.<br><br>• GrALeko edo MALeko, enpresako eta gizarte eragilearen arauak, balioak, erregulazio eta funtzionamendu moduak, eta lanerako metodoak ezagutu, errespetatu eta betetzea.<br><br>• Programako eragileek programaren esku utzitako ondasun materialak arduraz erabiltzea.<br><br>• Eginbeharreko zereginetan, profesionaltasunez, gizatasunez, enpatiaz, errespetuz eta eraginkortasunez jokatzea. | *Yo, ……………………… con DNI ……………………, firmo esta declaración como señal de estar de acuerdo con el cumplimiento de los requisitos de esta beca que se desarrolla dentro del Programa IKD GAZTE.*<br><br>• *Asistir a todas las sesiones presenciales entre febrero y junio de 2023.*<br>• *Defender el TFG y TFM en el curso 2022/23.*<br>• *No cerrar el expediente hasta cobrar el 100% de la beca. Llevar a cabo una adecuada gestión del tiempo y de la energía para hacer frente a las tareas y responsabilidades a asumir.*<br>• *Conocer, respetar y cumplir las normas, valores, formas de regulación y funcionamiento y métodos de trabajo de la empresa, del agente social, de los TFG y de los TFM.*<br>• *Hacer un uso responsable de los bienes materiales que los agentes implicados en el Programa van a poner a nuestra disposición.*<br><br>• *Actuar con profesionalidad, humanidad, empatía, respeto y eficacia en las tareas a realizar.* |

Sinadura eta data / *Firma y fecha*